

Futbola

SEVILLAKO HAMAIIKAKOA ZELAIRATUKO DU STEPANOVICEK, GALDAMES ANDRINUAREN LEKUAN JARRITA

Beldur barik

Athleticek galdu egin ditu San Mamesen jokatu dituen azken hiru partiduak eta bolada txar hori amaitzen saiatuko dira gaur Stepanovicen mutilak. Ez dute, ez, aurkari egokiena aukeratu goranzko bideari ekiteko, Barcelonak lau aldiz irabazi baitu Katedralean azken sei denboraldietan. Garaipena ezinbestekoa da bi taldeentzat.

Ramon Basaldua / Bilbo

INOLAKO beldur barik egin nahi dio aurre Dragoslav Stepanovicen Barcelonari. Athleticeko entrenatzailearen hitzetan, bere jokalarien errendimenduak ehuneko ehunik gorakoa izan beharko du emaitza ona lortu ahal izateko. «Nire jokalaria beldur handiz aritu ziren lehen itzulian Nou Campen. Oraingo honetan ez du horrela izan behar. Ez dugu beldurrik izan behar, ezta zalantzarik ere. Partiduak garrantzi handia du guretzat puntuak behar ditugulako».


Stepanovicen arabera, norgehiagokako aurreneko 20 minutuak erabakigarriak izango dira. «Lehen minutuetan sekulako presioa izango da eta geure burua ondo ateratzen badugu partidua aurrera ateratzeko moduan izango gara». Serbiarraren iritziz, «euren buruan konfiantza duten gizonak segurtasun hori igorri behar diete taldeko gainerako kideei».

Hamazazpi gizonak osatutako deialdia egin du Stepanovicen Barcelonaren aurkako partidurako, atzo ez baitzekien Jon Andoni Goikoetxeak jokatzetik izango zuen. Beste alde batetik, Ander Garitanok ez zuen atzoko entrenamendua amaitu gainkarga txiki bat zuelako. Dena den, entrenatzaileak hasieratik zelairatu nahi du Derioko ezker-rra. «Bihar (gaur) ikusiko dugu nola dagoen baina, berak esan didanaren arabera jokatzeko moduan izango da».

Jose Manuel Galdames izango da nobedade nagusia Athleticeko hasierako hamaikakoa, Sevillan lesionatu zuen Gaur Andriunaren ordez. Stepanovicen ez du Oscar Vales atzealdean jarri nahi «erdialdean behar dudalako». Horrenbestez, Carlos Garcia, partidua bateko zigorra bete ondoren deialdira itzuli den gizonak, ordezkoen aulkitik ikusiko du partidua. Horretaz gain, Alkiza eta Mendiguren ere ez daude zerrendan, entrenatzailearen ustez oraindik ez daudelako jokatzeko moduan.

Athleticeko entrenatzaileak begirune handia dio Barcelonari. Haren hitzetan, txapelketako finalerako txartela eskuratu izanak sekulako konfiantza eta go-goa eman dio talde kataluniarri. «Baliteke aste hau denboraldiko garrantzitsuen izatea Barcelonarentzat». Johan Cruyffen erdialdea itotzen saiatuko da Athletic, Stepanovicen markaketa berezirik aginduko ez duen arren. Hala ere, Joseba Etxeberria eta Bolok ohi baino gehiago lagundu beharko dute defentsa lanetan.


Jorge Aizkorretak azterketa



zaila gainditu beharko du gaur San Mamesen. Portugaletokoa lasai dago eta ez dio beldurrik Meho Kodrori, azken jardunaldietan gol ugari sartzen ari den gizonari. «Kodro goi mailako jokalaria bada ere, talde guztietan izaten da goleatzailearen bat. Lasai nago eta ea gauzak ondo ateratzen zaizkidan», adierazi zuen Jorge Aizkorretak atzo Lezaman. Athleticeko atezain titulararen iritziz punturen bat lortzea emaitza ona litzateke Barcelonaren aurka.

Joseba Etxeberriak dioenez, Barcelonak azken jardunaldietan lortutako emaitza onak motibatu egin ditu Johan Cruyffen taldeko jokalaria. «Zertan esanik ez dago guretzat kaltegarria dela Barcelona hain konfiantza handiz etortzea». Elgoibartarren ustez, erdialdeko lerroen arteko borrokak erabaki lezake norgehiagoka. «Ez diegu pentsatzeko astirik eman behar. Goi mailako jokalaria ditu eta presio izugarria egin beharko dugu».

«Berba egiteak ez du ezertarako balio. Irabazi egin behar dugu eta kitto», esan zuen atzo Carlos Rexachek, Johan Cruyffen bigarrenak. Barcelonak ezinbestekoa du garaipena gaur San Mamesen, presioa sartzeko bihar Riazoren Coruñaiko Deportiboren aurka jokatu duen Atletico de Madridi. Cruyffen taldeak irabaziko balu eta Anticena galduko balu bost puntutan geratuko litzateke bien arteko aldea. Gainera, ez da ahaztu behar Atletico de Madridek Nou Campen jokatu behar duela 37. jardunaldian.



Galdames, Lezamako entrenamendua batean. Ziurrenik berak jokatu du min hartuta dagoen Andriunaren ordez.

XOUSE SIMAL

Stepanovic: «Nire jokalaria beldur handiz aritu ziren lehen itzulian Nou Campen. Oraingo honetan ez du hala izan behar»

San Mames bete barik

• RAMON BASALDUA •

«Taldea honek jarraitzaile berotasuna behar du», hal adierazi zuen atzo Stepanovic, gazteleraz, aste honetan Ander Garitanok esandakoan helduz. Horrenbestez, San Mames beteta egotea espero du Athleticeko entrenatzaileak. Hala ere, Katedrala ez da beteko zuri-gorrien eta Barcelonaren arteko partiduan. Bazkideek ordaindu egin behar dute, eta, antza, asko dira zelaira joango. Horretaz gain, telebistatik eman duten Espanyol-Sevilla partidua zaletu askoren laguntza kenduko die zuri-gorriari.

Jarraitzaileen jarrera azken urteotan hoztu egin dela esan zuen Clementek Peña Lakar beg taldeak antolatutako ekitaldian. Horretan behintzat bat nator Barakaldokoarekin. Anorthosis, Newcastle eta Parmaren aurkako partiduetan gori-gori izan behar du mailak. Orditik hona, osteren jardunaldi askotan jarraitzaileek, ate atzeko zaletuak izan ezik, lagundu baino gehiago mar-mar hotsa eskaini dion taldeari. Athleticek garrantzi handiko partidua jokatu du, eta jarraitzaileak lagunduz ez badio ez du zer egin handirik izango. Barcelonak etorrira San Mames betetzeko ez bada, jai dugu. X